

BALIO PROPOSAMENA



Datu Estatistiko ofizialek urtean batez-beste 141 egun euritsu ditugula dioten arren, ez dira asko aisialdian zehar aterpean burutzeko Gipuzkoan ditugun aukerak. Egun desatsegin hauetan, zinemara joan gaitezke, merkatal zentru batean erosketak egin, izotz-pista batean ibili,... baina plan bera hainbat asteburutan errepikatuz gero, alternatiba bila hasi ohi gara. Hori horrela izanik eta eskaintza zabaltzekotan, Usurbilgo Urbil merkatal-zentrutik gertu kokatuko litzateken bolatoki bat eskainiko dugu.

Bowling izeneko bolatoki hau arratsaldeak indoor aukerak baliatuz modu entretenigarrian pasatzeko gune bat izango da. Boloez gain bilarrak, futbolinak, makina boxerrak, izango ditu Estatu Batuetako tematika (yankee) batez jantzita.

Bertan, bolotan jolasteko aukera izanez gainera, errekreatiboak eta Estatu Batuetako tematikan oinarritzen den taberna bat jarriko dugu. Gainera, jolasak jarriko ditugu: bilarrak, futbolinak, makina boxerrak, etab.

Hala, Euskal Herrian zehar Bowling bezelako 2 espazio aurkitzen dira, Gasteizen eta Bilbon hain zuzen ere. Gipuzkoan ez dago horrelakorik ordea, eta aukera paregabea izan dugu probintziaren erdigunean

gipuzkoar guztientzat modu irisgarrian kokatu eta aukera berri bat gerturatzeko.

Espazio handia izango denez, jende asko sartu ahal izango da bolatokian eta gainera, ondo komunikatuta egongo da, tren geltokia eta autobus geltokia baitago poligonoaren ondoan. Kotxez etorri nahi duenak ere errez edukiko du aparkatzeko, aparkalekua egongo da eta.

Azken finean, gure helburua, 12 urte baino gorakoek gure zerbitzuataz gozatzea izango da.